

markeliñe

Hodei guztien gainetik



“Pertsona handi guztiak umeak izan dira lehen,
baina gutxik gogoratzten dute”.

Printze txikia



HODEI GUZTIEN GAINETIK

antzezlana familientzako sorkuntza originala da,
Markeliñe antzerki konpainiaren giltzarritan
oinarritua: egoera magiko eta poetikoak, umorea
eta sorpresa bisualak.



Egungo bizimoduaren
dinamikek eragotzi egiten dute gurasoek seme-alabei
behar duten denbora eskaintzea. Helduen makineriaren
mende dagoen ume bat erreskatatzearen diagnostikoa
partekatzen dugu, eta deskubritzearen “harriduraz” gozatuz
jolasteko kalitatezko denbora eskatzen dugu. Estreinakoz
deskubritu beharreko gauza zoragarri guztien ikasketa
geldoa sustatzeko.





Izaki ikusezinak
egongo balira!
Eta gu ohartu gabe
bizitzaren lehentasunak
erakutsiko balizkigute!

Markeliñek hizkuntza eszeniko propioa eta pertsonala
du: harriduraren bilaketa etengabea, keinu zaindua,
sorpresa bisuala eta manipulazioa.





HODEI GUZTIEN GAINETIK antzezlanak bere lanaren errutinan harrapatuta, jolasteko plazerra ahaztu duen aita lanpetu baten istorioa kontatzen du. Egun batean, zorabio bat jasan ondoren, kartoizko hodeien artean esnatuko da. Bertan, kaleko aingeru bat bizi da. Pertsonaia magiko horrekin garatuko duen harremanaren bidez, aitak galdutako inozentziara bidaia hasiko du.

Kartoi zati bakoitza sinplea den hori aparteko bihurtzeko eta une bakoitza abentura bihurtzeko gonbidapena da. Abeletxe bat ezkutatzen duen kartoizko kutxa bat, bainatzeko eta urpean aritzeko hodei bat. Beste hodei bat, espazio-ibilaldi baterako zaldi-gurdi bihurtua... Kartoizko zeru horretatik, pertsonaiek urrutitik begiratzen dituzte munduko guduitsu eta ergelak. Aitarik gabe jolasten ari den ume bat ere ikusiko dute, eta horrek tristura eta damua eragingo ditu, berreskuraezina den denborarengatik.



Sinopsia

Fitxa Artistikoa

Sorkuntza: **Markeliñe**

Antzezleak: **Maite Bayón, Fernando Barado**

Koordinaketa artistikoa: **Iñaki Egiluz**

Zuzendaritza: **Markeliñe**

Musika: **Xabier Zeberio**

Eszenografia: **Markeliñe eta Rafa Marco**

Argiztapena: **Jon Kepa Zumalde**

Jantziak: **marieta soul**

Argazkiak: **Jagoba Del Castillo eta marieta soul**

Bideoa: **Pausa**

Promozioa: **Teresa Sala**

Diseinu grafikoa: **Eneko Etxeandia**

Ekoizpena: **Joserra Martínez**

Teaserra





Hodei guztien gaineratik

Harremanetarako:

markeline@markeline.com

650 038 731 (Teresa) / 605 700 284 (Joserra)

markeliñe

www.markeline.com



YouTube

